

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

BEZEROAK:

Gure produktua erosiko dutenek gehienbat zaborra jasotzen duten enpresak izango dira. Guk ingurumena zaintzearen alde dauden bazkideak bilatzen ditugu, guztiok munduan dugun benetako arazoari garrantzia ematen diotenak, birziklatze txarrak, kontsumoak, kutsadurak... eragindakoak. WRST oso aukera ona da birziklatze ona bultzatzeko eta, batez ere, espazioa asko aprobetxatzeko, horrela, hainbeste zabor-poltsa ez kontsumitzeko. Gure bazkidea kutsaduraz eta kontsumoaz (poltsak eta zaborra, kasu honetan) jabetzen den pertsona bat da, eta proiektu hau burutu nahi du horrekin amaitzeko. Horrela pentsatuta adin guztiei dago zuzenduta, azkenean kutsadura eta kontsumizioa guztin arazo bat da, baina ulergarriagoa da gehiago pentsatuta egon izana jende helduagoari eta enpresei.

HAIEN EZAUGARRIAK:

Horiek guztiak jakitun dira zaborraren eta plastikoaren arazoaz, eta, beraz, solidarioak izan nahi dute eta proiektu honetan parte hartu. Horietako askok etxean oso ondo zaintzen dute birziklatzearen eta kontsumoaren gaia, baina beste askok, nahi izan arren, ez dute horretarako tresna nahikorik. Pertsona horiek arrazoia erabiltzen dute, eta horietako askok dagoeneko landu ahal izan dute kontsumo eta kutsaduraren elkarte batean, eta gai hori zertxobait gehiago ezagutzen dute, noizbait landu baitute.